

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

---

Gure balorezko proposamena garatu ahal izateko, gure bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko, funtsezkoak diren zenbait baliabide behar ditugu. Horien artean daude baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontutan hartuta, kostuak ahalik eta gehien murrizteko, gure berezko baliabideetaz baliatuko gara. Ane Deahorak bere aitite-amamaren etxean kokatutako "txapitula" eskainiko du. Izan ere, oso leku aproposa da lan egiteko, bainugela, logelak, sukaldea, terraza eta egongela dituelako. Izaro Bilbaok bere motorra jarriko du garraiobide gisa edozein unetan higitu ahal izateko eta, horrela, zenbait enprekin harremanetan jartzeko APPENDENTZIA promozionatzeko edo haiek gure aplikazioan promozionatu daitezen, edo, are gehiago, erakunde ofizialetara joan ahal izateko, enpresa baten hasieran oso beharrezkoa baita. Teknologiarri dagokionez, gure hiru ordenagailuak, hiru mugikorrak eta datuen zerbitzu pertsonalak erabiliko ditugu hasierako kostuak murrizteko.

Baliabide intelektualei eta giza baliabideei dagokienez, horiek zehazteko gure gaitasun, ahalegin eta ilusio guztiak ipiniko ditugu. Pertsona bakoitza esparru desberdin batean ona dela diote. Beraz, asko hitz egin ondoren, saiatu gara gutako bakoitzak dituen indarrak identifikatzen eta app-era bideratzen. Horrela, Izaro Bilbao berrikuntzaz eta merkatuaren hedapenez arduratuko da. Izan ere, LEINN izeneko unibertsitate-gradua ikasi nahi du. Ane Deahorak harreman komunikatiboak sare sozialen bidez kudeatuko ditu, bere grina baita. Eta Leire Marcelinok hainbat ikastaroetan (Deustuko Unibertsitatean sormenari eta hizkuntza informatikoari buruz egindako ikastaroak) ikasitakoa aplikatuko du: diseinuan duen trebetasuna erabiliz, aplikazioaren publizitatea, marketina eta diseinua hobetuko ditu (emotikonoak).

Gainera, gure familien laguntza eta babesa izango dugu, eta haiek ere euren baliabide intelektualak eta giza baliabideak eskainiko dituzte: Izaro Bilbaoren aita ertzaina da eta segurtasun informatikoa eta zibila emango digu, hackerren aurrean APPENDENTZIA babestuz; eta Leire Marcelinoren amak, agente fiskal gisa lan egiten duenez, aholkularitza juridikoa eta fiskala emango digu zerga-gaiei dagokienez.

Azkenik, finantza-baliabideak nabarmendu behar dira. Horien artean, berezko finantza-baliabideak eta kanpoko finantza-baliabideak bereizten ditugu. Berezkoen artean, hainbat urtetan bildutako aurrezkiak eta COMPUTATA S.A. enpresak APPENDENTZIA ezartzeko eta martxan jartzeko egindako %40ko deskontua erabiliko ditugu. Deskontu hori berezia da, enpresa honetan Leire Marcelinoren aitak lan egiten duelako. Horrek esan nahi du, egoera orokor batean, aplikazioa askoz garestiagoa izango litzatekeela. Hala ere, kanpoko finantza-baliabideak izango dira garrantzitsuenak, batez ere, diru-laguntzak. Askok ikertu ostean, honako hauek aurkitu ditugu:

- Bizkaiko Foru Aldundiak hurrengo dirulaguntzak eman ahalko lizkiguke:
  1. Ekonomia Sustapen Sailaren bidez:
    - Enpresa Berritzaileak Sortzeko 2020ko Programa 2. arlo honen bidez gauzatuko da: enpresa berritzaile berriak.

- Emandako dirua: 65.000€ gehienez
- Baldintzak ikusteko esteka:

[https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO8/Temas/2020/Promoci%C3%B3n%20Empresarial/Creaci%C3%B3n%20de%20empresas/CR%20\(2.arloa\)/EUS/1\\_Ficha%20Programa%20Creacion%20Empresas\\_2arloa%20\(CR\)eus\(1\).pdf?hash=967032c6a6976c7f29a0fa370536a5c7&idioma=EU](https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO8/Temas/2020/Promoci%C3%B3n%20Empresarial/Creaci%C3%B3n%20de%20empresas/CR%20(2.arloa)/EUS/1_Ficha%20Programa%20Creacion%20Empresas_2arloa%20(CR)eus(1).pdf?hash=967032c6a6976c7f29a0fa370536a5c7&idioma=EU)

2. Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailaren bidez:

- Bizkaia sortzailea: sormen industriarekin -bere aplikazio eremu guztietan- lotutako jarduera ekonomikoko sektore sortu berriak bultzatzeko laguntzak.
- Emandako dirua: 190.000€ gehienez
- Baldintzak ikusteko esteka:

[https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO8/Temas/2020/Promoci%C3%B3n%20Empresarial/Bizkaia%20Creativa/BC%20eus/2\\_Ficha%20Bizkaia%20Creativa\\_eus.pdf?hash=24b07fd79bf9f3fa4584602ac392e250&idioma=EU](https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO8/Temas/2020/Promoci%C3%B3n%20Empresarial/Bizkaia%20Creativa/BC%20eus/2_Ficha%20Bizkaia%20Creativa_eus.pdf?hash=24b07fd79bf9f3fa4584602ac392e250&idioma=EU)

3. Enplegua, Gizartea eta Berdintasun Sailaren bidez:

- Emandako dirua: 15.000€ gehienez
- Baldintzak ikusteko esteka:

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2020/02/21/I-131\\_eus.pdf?hash=27974298f7a02acb817e2438d36a110f](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/02/21/I-131_eus.pdf?hash=27974298f7a02acb817e2438d36a110f)

- Espainiako Estatuak hurrengo dirulaguntza emango liguke:

1. Berdintasunaren Miniserioaren bidez:

- Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuaren bidez
- Emakumeen ekintzailtza
- Emakumeei enpresa-laguntza emateko programa (gazteleraz, PAEM)
- Emandako dirua: 25.000€ gehienez
- Baldintzak ikusteko esteka:

<https://www.inmujer.gob.es/areasTematicas/Emprendimiento/ProgApoyoEmpresarial.htm>